

4

Oso arretatsua naiz. Konturatu nintzen, adibidez, Marcelok, astelehen, asteazken eta ostiraletan erantzuten ziela nire mezuei, arratsaldeko lauretatik bostetara. Oso-oso noizean behin idazten zuen goizez. Inoiz ez astearte, ostegun edo larunbatetan. Pentsatu nuen agian lanetik idazten zidala eta eragozpenak izango zituela ordenagailua kontu pertsonaletarako erabiltzeko. Horregatik ziren mezuak hain laburrak, ez zuelako arazorik nahi.

Norbait Internet bidez ezagutzen duzunean, berari buruz ez dakizun guztia imajinatu beharra daukazu. Hortik erratzea.

Seguruenik horretaz guztiaz baten batekin hitz egiteak lagunduko zidan kontu hura beste era batera ikusten, erokeria bat zela kontura-

tzen. Baina nire lagun bakarra Sandra zen eta ez geunden gure arteko onenean. Iruditzen zitzaidan bera oso arraro zebilela mutil-lagun harekin hasi zenetik, unibertsitateko ikasle bat, mutila Sandra aldarazten ari balitz bezala. Edo agian neu nintzen arraroa, auskalo. Beharbada inbidia pixka bat ematen zidaten. Kontua da ez niola inori ezer esan.

Argazkia bidali eta egun pare batera, Marcelok beste bat eskatu zidan. Oso gogorra izan nintzen:

Ez dizut besterik bidaliko zuk zeurerik bidali arte.

Funtzionatu zuen. Mezu elektronikoa jaso nuenean dokumentu bat erantsita, aztoratu egin zitzaizkidan bihotz-taupadak. Ama sukaldean zegoen, baina ireki egin nuen mezua, hala ere. Ezin nuen segundorik itxaron. Nire aurrean, literaturako lana. Atzean, ama gehiegi hurbilduz gero ezkutatzeko prest, ikusteko irrikaz nengoen argazkia.

Hain imajinatuta neukanez, beldur izugarriarekin ireki nuen argazkia. Eta ez bazen nik uste nuen bezalakoa? Eta motza ere motza bazen?

Uste dut arnasa hartzea ere ahaztu zitzaidala segundo batzuetan. Aldizka, bizitza gelditu egiten da. Segundo batzuk, higidurarik ez. Mundua mututuko balitz bezala benetan garrantzitsua dena azpimarratzeko. Ondoren, denak jotzen du ozenago. Nire bihotza danborra bezala. Pon, pon, pon, pon.

Pantailan, mutil baten argazkia, gorputz osoa, judo egiteko-edo jantzita: praka zuriak, alkandora zuria, gerriko beltza. Ez neukan ideia-rik ere arte martzialei buruz, baina sumatu nuen gerrikoaren koloreak maila ona adierazten zuela. Argala zen, ile ilun kizkurtxoa eta begiak... —irudia hurbildu nuen— urdinak, edo berdeak. Altu samarra ematen zuen. Irribarrez ari zen. Pertsona onaren aurpegia zeukan. Bizkar aldean gimnasio bateko instalazioak ageri ziren.

Erantzun nion:

Judoa egiten duzu, ala?

Mezua ziztuan iritsi zen oraingoan —bostak laurden gutxi ziren— eta irribarrea atera zidan:

Taekwondoa. Badakizu zer den?

Gutxi gorabehera. Gerriko beltza zara ala zikin dago?

Jajajajaja! Oso ona! Gerriko beltza. Lehen Dana.

Zer da dena delako Dan hori?

Maila bat. Esan nahi du ona naizela.

Azalduko didazu zer egin duzun lortzeko, ados? Elkar ikusten dugunean edo?

Pentsatu gabe idatzi nuen esaldi hori. Batzuetan, denok egiten dugu zer edo zer behar beste pentsatu gabe. Baita jenderik zuhurrenak ere (edo bere burua zuhurtzat daukanak). Baita jenderik argienak ere. Nik asko pentsatu nuen zer esan, noski. Aurrean eduki nahi nuen Marcelo, begietara so egin eta beraren begirada neure begiradan sentitu. Argazkia ikusi aurretik ere desio nuen hori. Berdin zitzaidan motza izan balitz ere, zatarkotea izan balitz ere. Baina orain, nolakoa zen jakinda, gogoa biziagoa zen. Geratzeko gogoa, elkar ikusteko gogoa. Berak

proposatzea gustatuko zitzaidakeen, baina ez zuenez egin, ausartu egin nintzen. Ni ere zorangatxoa naiz batzuetan. Eta erantzuteko astirik ere eman gabe, kargutu nintzen baneukala gauza pare bat esateko:

Aizu, oso gustukoa zaitut. Esan nahi dut zure argazkia asko gustatu zaidala eta erabakitzeko bultzada izan dela. Badakit posta elektronikoa ezin duzula asko erabili. Gainera, ez da modua. Zerbait hartzeko geratuko bagina, denari buruz hitz egin ahal izango genuke, ezta? Ez duzu uste? Idaztea baino metodo are zaharragoa da. Ez duzu gogorik? Tira, esan non eta noiz!

«Bidali» sakatu nuenerako, damutu egin nintzen gauzak hain zuzen esateagatik. Ez al zaizue inoiz gertatzen seigarren zentzumen batek, esan dezagun intuizioa dela, abisatzen dizuela gauzak ez direla ondo amaituko?

Bada, une hartan nire seigarren zentzumena sentitu nuen alarma-seinaleak ematen jo eta ke.

Klin, mezu bat duzu irakurri gabe.

Argazkiak ez du inporta. Nik jakin nahi dudana da ea zure gustukoa naizen barrutik. Garrantzitsuena ikusgaitza da begientzat, bazenekien? Zutaz askoz gehiago gustatzen zait ikusten ez dena, barruan dagoena, eta hori, superguapa topatzen zaitudala.

Ez nuen erantzun hori espero. Ematen zuen ez zuela nik idatzitakoa irakurri. Okerrago: baloiak kanpora botatzen ari zela. Erantzun nion:

Jakina gustukoa zaitudala barrutik, baina kanpotik ere bai. Irakurri al dituzu aurreko nire mezu biak? Geratzeko gogorik bai ala ez?

Ipurterrea naiz, badakit. Akats handia. Amak beti esaten dit:

—Egunen batean, zure presa horiek disgusturen bat emango dizute, Xenia. Ikasi beharra daukazu dena ezin dela momentuan eduki, alabatxoa.

Dena eta momentuan. Zergatik itxaron? Horixe da nire bizi-filosofia. Garbi geratu da Marcelorena ezetz.

Erantzunak aho bete hortz utzi ninduen.

Ez dut nahi. Oraindik ez. Azalduko dizut egunen batean.

Mozoloa izango naiz, mezu hark negargura itzela eman zidan eta. Marcelok ez ninduen ezagutu nahi, ez zeukan presarik, ez zuen nik sentitzen nuena sentitzen. Erratu egin nintzen, erridikulua egiten ari nintzen.

Nire erantzuna:

Ulertzen dut, ez kezkatu. Uste nuen nik zu gustukoa zaitudan moduan nintzela ni zure gustukoa, baina ikusten dut bizkorregi ibili naizela. Ez du inporta. Sentitzen dut, ez nuen nahi gaizki sentitzerik nire erruz. Plazera izan da zu ezagutzea, Marcelo López. Bakean utziko zaitut. Musu bat.

Bidali. Mezua bidaltzen. Mezua bidalita.

Bihotza galapan.

Zenbatu egin nituen segundoak. 14.

Itxaron. Mesedez, itxaron.

Ezer esan nahi ez zuten hiru hitz. Ala bai? Zeri itxaron behar nion? Bostak ziren. Zerbait-tek esaten zidan biharamunera arte ez nuela beste mezurik jasoko.

Erratu egin nintzen. Sei eta erdiak aldera beste mezu bat sartu zitzaidan. Mezu luze bat, ez zuena ematen berak idatzitakoa.

Xenia, ez dizut mezu hau idazten ezer erregutzeko. Ez daukat praktika handirik erregutzen. Baina nahi dut zuk jakitea azken egunotan oso garrantzitsua izan zarela niretzat. Nik ere oso gustukoa zaitut, eta horrela esanda, uste dut labur geratzen naizela. Sekula ez dut sentitu antzeko ezer. Esango nuke maitemindu egin naizela. Oso arraroa da hau guztiau. Zugan pentsatzen aritzen naiz jaikitzen naizenetik oheratzen naizenera arte. Zu ezagutzea desio dut ezer baino gehiago mundaan, baina ezinezkoa da orain. Maite zaitut. Uf, zein arraroa den hori idaztea. Baina egia santua da. Jakitea nahi nuen. Nire bizitzatik desagertu nahi baduzu, libre zara. Nik beti izango zaitut gog.

Horrelaxe bukatzen zen mezua. Bat-batean, azken hitza osorik idatzi gabe. Nahi gabe bidali izan balit bezala.

Zain egon nintzen apur batean, ea beste mezuren bat sartzen zen, baina ez. Ordu-erdi geroago neuk idatzi nion.

Ez daukat zure bizitzatik desagertzeko asmorik. Nahiz eta gauza mordoa ulertu ez eta galdetu nahi. Berdin da, morroi misterioitsuak gustatzen zaizkit, nonbait. Salinger bezalakoak, gogoratzen?

Ez zidan berriz erantzun arratsalde hartan —asteazkena zen—, ezta biharamunean, ezta ostiralean ere. Asteburuan ere ez.

Ez dakit zenbatetan begiratu nuen posta egun amaigabe haietan, ezta ere zenbatetan aditu nuen amaren ahotik galdera bera:

—Jakin al daiteke zer gertatzen zaizun, laz-tana?

Ez. Ezin zen jakin. Amak ez zuen tutik uler-tuko.

Marceloren falta sentitzen nuen sekula inoiz ez bezala, horixe zen gertatzen zitzaidana. Ba-

rregarri sentitzen nintzen mamu batekin txo-
ra-txora egoteagatik. Beldurra ematen zidan
nire bizitzatik betiko desagertu ahal izateak. Ez
nuen ulertzen zein zen beraren arazoa, baina
bistan zen bazuela izan, eta ni laguntzeko irri-
kaz nengoen. Ezin nuen ezer egin gertatzen ari
zena saihesteko. Itxaron eta itxaron, besterik
ez.

Itxaron. Horra hor hiztegiko hitz guztietatik
gehien gorroto dudana.